

Gasteizen errepika dezala Gernikako zin egite ekintza eskatu dio UAk Ardanzari

GASTEIZ

Unidad Alavesa alderdiak Jose Antonio Ardanza Gasteizko Jaurlaritzako lehendakariari eskatu dio, Gasteizko Arriagako ermitan ere zin egin dezala bere kargua. «Arabako ohiturak defendatuko dituela adierazi dezan nahi dugu, Gernikako arbolaren aurrean egin zuen ekintza sinboliko bera burutzuz» adierazi zuen atzo Jose Luis Añua UAko lehendakariak.

Gasteizko Jaurlaritza berriaren osaketaren aurrean UAk duen jarrera ezagutarazi zuen atzo Gasteizen Añuak, eta «gobernu berria epaitu aurretik denbora epe bat» emango diotela esan zuen.

Euskal Autonomi Elkarteak lortzeko dituen transferentzien eskakizunean, gobernu berria apoiatuko duela adierazi zuen UAko lehendakariak. Dena den, «Estatutoaren interpretazioari buruzko eztabaida zabal bat» eskatu zuten.

Pablo Mosquera, UAko idazkari nagusiak Ajuria Eneako paktukideen azken bilera baloratu zuen. Hitzarmenak, instituzioetan gaurkotatuta duten arazoengatik, eztabaida monografikoak bultzatu behar dituela esan zuen. Gasteizko Legebiltzarrak drogren arazoa saio berezi batean azter dezan, eskatu zuten eta ingurugiro gaiak Ajuria Eneakoa paktuak eraman ditzala eskatu zuten, eta baita Gasteizko Legebiltzarrak drogren arazoa aztertuko duen saio berezi bat egitea ere. Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetara begira UAk «bere independentzia» gordeko duela eta beste alderdi politikoekin ez duela inolako kontakturik izango hauteskundeak pasa ondoren adierazi zuten UAko ordezkariak.

Euskariak aurrera egingo du autodeterminazioaren eskaeran

Gasteizko Legebiltzarreko erabakia kontraesan bat dela dio

Euskariak autodeterminazio eskubidea indarrean jartzea «ezinbestekotzat» jotzen du Euskal Herriaren normalizaziora heltzeko. Gasteizko Legebiltzarrak bere eskaera atzera bota arren, aurrera egingo dutela ziurtatu zuten, anparo errekurtsua aurkeztuz.

FELIX IRIARTE / GASTEIZ

Euskariak bere esku dagoen dena egingo du autodeterminazio eskubidea indarrean jartzeko. Gasteizko Legebiltzarrak atzera bota zuen aurkezturiko eskakizuna, baina horregatik ez dutela etsiko adierazi zuten atzo Mikel Urkola eta Jose Landalucek, Euskariako arduradunek.

«Legebiltzarraren erabakiak uzten digun irtenbide bakarra anparo errekurtsua aurkeztea da, eta hori egingo dugu. Eta honek ez badu fruiturik ematen Strasbougera joko dugu» esan zuen Jose Landalucek. Instituzioen bidetik zerbait lortzea «zaila» ikusten dute, baina dena den subironatasuna aldarrikatzen jarraituko dutela ziurtatu zuten, «instituzioetatik ezin bada beste bide batzuk urratuz».

Datorren ostiralean urtebete izango da Gasteizko Legebiltzarrak autodeterminazioaren eskubidea onartu zuenetik. Urte honetan hainbat elkarriketa izan ditu Euskariak alderdi abertzale ezberdinekin eskubide hori aurrera eramateko, baina «emaitzik gabe» adierazi zuten.



Mikel Urkola eta Jose Landaluze, Euskariako partaideak.

OLALDE

✓ «Instituzioak (Legebiltzarrak) esparru txiki bat uzten dio herri ekimenari, baina orain hori ere itxi egin zaigu. Non daude instituzio demokratikoak?»

ESKATU BAINA EZ EXIGITU Gasteizko Legebiltzarrak baina kontraesan batean aurkitzen dela salatu zuen Mikel Urkolak. «Alde batetik autodeterminazio eskubidea eskatzen dute eta bestetik ez daude prest hori exigitzeko» kexatu zuen Mikel Urkola, EAJ eta EEren jarrera ikusirik. Egoera horren aurrean herri ekimenari ekin zion Euskariak, legezko proposamen bidea jorratuz, baina Legebiltzarraren erantzuna ikusirik, instituzio hori

demokratikoa dela ere zalantzan jarri zuen atzo.

«Instituzioak esparru txiki bat uzten dio herri ekimenari, baina orain hori ere itxi egin zaigu. Non daude instituzio demokratikoak?» galdetu zion bere buruari Urkolak. Bere esanetan instituzioak boterearen instituzioak dira, batetik demokratikoak direla diotenak, eta bestetik demokraziaren izenean bideak ixten dituztenak. «Nola esan daite instituzio hoiek demokratikoak direnik?», galdetu zuen Urkolak. Euskariaren ustetan instituzioak «mozorroturik» daude, eta euren lana da benetako aurpegia azalaraztea. «Instituzioen sasi demokrazia agerian jartzen ari gara. Esperientziak esaten digu instituzio horiek bide demokratikoak itxi eta ukatzen dizkigutela, baina gu baikor gaude desmorreratze horretatik aurrerapausu garrantzitsu bat etorriko delako» esan zuen Urkolak.

Gazte mugimendua eta antolaketa eztabaidagai Baionan

J. LAUTRE / BAIONA

'Gazteriaren mugimendu, antolaketa eta instituzioak' lema inguruan bilduko dira gaur arratsaldeko 3etan, Baionako Biltxokan, Euskal Herriko gazte mugimendu eta elkarre andana bat, Herri Batasunak antolatutako sinposiumaren barne.

Euskal gazteri mugimenduz iragaithekoa den eztabaida honek, hasitapenean Baionako Etxe Askatua skuatzen iragan beharra zen «hain zuzen ere agertzeko gazte bizi dituzten arazoetarik bat, etxebizitzaren arazoa».

Gazte guztiei irekia den eztabaida horretan parte hartuko dute Patxa, IEGA, GABE, AJIR, Lizeo komitea, Bilboko Gaztetxea, Jarrai, Iruñako okupas, Ikasle abertzaleak, Hegoaldeko anti-militarista mugimendua, Andoaineko Herri olinpiadak.

Gazteriaren mugimenduaren inguruan, puntu hauek aztertu eta eztabaidatuko dituzte. Sozio-politiko sensibilitate desberdinak kontuan hartzen dituen gazteen euskal mugimendu zabal baten egituraketa Euskal Herri osorako nahigarri eta posible ote da? Ze jokamolde ukan behar dute gazteen politiko erakundeek sailtako egiturei buruz?

Alderdi desberdinetan, gazteen erakundeak behar ote dira. Ze funtzio betetzen dute gazteriaren antolakuntzan kultur, kirol, erlijio eta astialdiakotasun batasunak? Ikasleak erresistentziaren ardatz bizi bat dira beti? Gazteriak beste sozial sailetarik baztertu behar ote du bere bizi alternatibak proposatzeko? HBk antolatutako mahai inguru hauen barne bestalde, gaur bertan Bilbon 'Femenismoa eta udal politika' gaia aztertuko da. Euskal Herriko emakumeen mugimendu desberdinetako ordezkariak hartuko dute parte.

GIPUZKOA NAFARROA AUTOBIA
AUTOVIA NAVARRA GIPUZKOA

ZURE IXILTASUNAK INDARTU EGITEN DITU

Por la libertad • Askatasuna



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gipuzkoako Batzarre Nagusiak
Juntas Generales de Gipuzkoa



EUSKO ALKARTASUNA



PSE + PSOE



EAJ + PNV



EUSKADIKO EZKERRA

Partido Popular

PARTIDO POPULAR

Herri Manifestazioa
Larunbata 16
arratsaldeko 5-etan
Alderdi Eder. DONOSTIA